

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Sputnik 11.**  
Batzuen artean.  
Bonberenea ekintzak.  
Iraupena: 32'29".  
8 euro.

## Norberak suziriak botatzen ikastea

TOLOSAKO lau talde gazte hauek bina kanta grabatu, eta Izaskun auzoko eta Tolosako labela ezarri diote Bonberenearen laguntzarekin lan eskergaz egindako emaitzari. Lau taldeotan da Bonberenean lanean aritzen den norbait, baina musika estiloetan antzekotasun gutxi dute: Switch taldeak metala lantzen du, tarteka melodikoagoa, tarteka gordinagoa. Indekitzenek, berriz, intentsitatearekin jokatzeko du pop-rocka egiteko zein musika dantzagarria eta noisea

batzeko. Glaukoma Sound Systemek erakutsi du Euskal Herrian reggaeaz gain, raggamuffina ere egin daitekeela eta uste baino giro epelagoa dugula. Azkenik, Dolce Tanganak rocka eta ska uztartzeko gaitasuna erakusten du ia The Mighty Mighty Bosstonesen pare. Talde berriei lagundu eta beraiek ikasteke ekimen aproposa da Bonbereneak ahalbidetu duena.

[www.myspace.com/sputnik11musika](http://www.myspace.com/sputnik11musika)

## Juantxo Arakama - Glaukoma Sound System

### «Sputnik 11ren helburuetako bat diskoa egiten ikastea zen»

#### Nola sortu zen ideia?

Lau taldeetako kide asko gabiltza Bonberenearen orbitan ekintzak egiten eta aspalditik elkar ezagutzen dugu. 2010eko abenduan Indekitzek, Glaukoma eta Dolce Tanganak kontzertua eskaini genuen Bonberenean eta Switch taldekoak ere han ziren. Orduan elkarlanean zerbait egiteko gogoia piztu zitzaigun. Talde bakoitzak bere kontura ezingo zuen disko propioa egin, grabaketa kontuetan eta abar geneukan esperientzia eta baliabide faltagatik. Hala, bilduma egitea erabaki eta Bonbereneako kideek berehala eman zituzten baiezkoa.

#### Zer baliabide eskaini dizkizuete Bonbereneak?

Disko osoa Bonberenean garatu zen, zortzi abestiak han grabatu eta nahastu baitziren. Imanol Urizar eta Mikel Zelaia, Bonbereneako kideak biak, izan dira grabaketaz eta nahas-



Glaukoma Sound System taldeko kideak argazkian. Switch, Indekitzek eta Dolce Tanganarekin batera ateratu dute Sputnik 11 bilduma.

ketaz arduratu diren gazteak. Bonberenearen laguntzarik gabe pentsaezina da guretzat horrelako ekimen bat burutu ahal izatea, beharrezkoak diren era ugariatiko baliabideak bertan aurkitu ditugulako. Ulertezina da Sputnik 11 Bonberenea gabe.

#### Nolako esperientzia izan da?

Sputnik 11ren helburuetako bat

disko bat egiten ikastea zen, grabaketatik hasi, promoziotik pasa eta aurkezteko behar diren kontzertuak antolatzen amaituz. Horretarako oso baliagarri izan zaigu lau taldeoi, etorkizunean izan ditza-kegun erronka edo proiektuei aurre egiteko.

#### Zergatik Sputnik 11?

Sputnik historian jaurti zen aurreneko satelitearen izena da, baita diskoaren azaleko Tolosako dorreei ematen zaien izena ere –duten “kohete” itxuragatik–. Guretzat ere

aurreneko jaurtiketa izan da disko hau, lau taldeen aurreneko satelitea musika munduaren espaziora. Eta aurkezpen kontzertua Sputnik dorreen plazan, Otsabi Auzo Elkarteak antolatzen dituen Izaskun Auzoko Festetan egin genuen. Dorre horiekin Tolosako taldeak garelara irudikatu nahi izan dugu. ■

